



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2022IPLE0002

Eguna: 2022-02-22

Ordua: 19:00 –19:20

Tokia: areto nagusian

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin IasaAstigarragako EH BILDU
- Aintzane Barandiaran EzpondaAstigarragako EH BILDU
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....Astigarragako EH BILDU
- Rosalia Fernandez RodriguezAstigarragako EH BILDU
- Estibaliz Neira MartinezAstigarragako EH BILDU
- Aitor Güemes OyarbideAstigarragako EH BILDU
- Ione Olatziregi MendiorotzAstigarragako EH BILDU
- Juan Martín Arregui Sagües.....Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.....Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco.....Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco.....Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista

Bertaratu ez direnak

- Urkiri Salaberria Gracia.....Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaraturako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK		ORDEN DEL DIA
2022ko urtarrilaren 25eko akta onartzea.		Aprobación del acta de 25 de enero de 2022.
Sagardoetxearen (sagardo museoaren) etorikitzunari buruzko herri-galdeketa		Consulta popular sobre el futuro de la Sagardoetxea (museo de la sidra)
2022ko zerga fiskalen aldaketa. Hasierako onarpena.		Modificación Ordenanzas Fiscales 2022. Aprobación inicial.
Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena.		Modificación de la ordenanza para la conversión de locales en viviendas. Aprobación inicial.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena.		Modificación ordenanza reguladora de viviendas tasadas municipales. Aprobación inicial.
Gipuzkoako foru Aldundiaren eta udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.		Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea		Contrato del servicio de asistencia domiciliaria: prórroga del contrato
Babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea.		Contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas: prórroga del contrato.
Adierazpen instituzionalaren proposamena: Martxoaren 8aren ingurukoa		Propuesta de Declaración institucional sobre el 8 de Marzo
Informazio, galdera eta eskariak.		Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2022ko urtarrilaren 25eko akta onartzea.

1.- Aprobación del acta de 25 de enero de 2022.

Akta aho batez onartu egin da.

El acta se **aprueba por unanimidad.**

2.- Sagardoetxearen (sagardo museoaren) etorikitzunari buruzko herri-galdeketa

2.- Consulta popular sobre el futuro de la Sagardoetxea (museo de la sidra)

Alkateak galdeketaren emaitzaren berri eman du honako hau izan dena:

El alcalde ha dado cuenta del resultado de la consulta que ha sido la siguiente:

Galdeketa-errola	5.924	
Parte hartzaileak	713	%12,04
BAI botoa	253	%35,48
EZ botoa	453	%63,53
Boto zuriak	5	%0,70
Baliogabetuak	2	%0,28

Jarraian adierazi du herritarren iritzia argia izan dela, ezezkoaren alde egin dutela, eta horrek esan nahi duela Sagardoetxeak eta bertan egiten diren inbertsioek orain arte bezala jarraituko dutela.

Acto seguido señala que que la opinión de la ciudadanía ha sido clara, que se han decantado por el no, y que ello significa que la Sagardoetxea, y las inversiones que se hagan en la misma, van a seguir igual.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

3.-2022ko zerga fiskalen aldaketa. Hasierako onarpena.

Alkateak azaldu du ordenantza aldatzeko beharra Foru Arauari egokitu beharraren ondorio dela. Jarraian, Ogasun eta Ondarea Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onarpena.

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onarpenaren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunetz.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onarpen-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

4. Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena.

Alkateak, ordenantza aldatzeko arrazoiak azaldu ondoren, Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

LEHENA.- Merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren aldaketa puntualari **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, honako alderdi hauetan oinarrituta:

a.- 2. artikuluko 3. paragrafoa ezabatzea.

b.- 2. artikulua aplkazio-eremutik kanpo geratzen diren kasuak arautzean, d) eta e) atalak gehitzea, honela idatzita:

“d) Indarrean dagoen hirigintza-plangintzan garaje/aparkalekuaren erabilera bereziko eta

3.- Modificación Ordenanzas Fiscales 2022. Aprobación inicial.

El alcalde explica que la necesidad de modificar la ordenanza deriva de tener que adaptarla a la Norma Foral. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Primero.- Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

Segundo.- Conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, el acuerdo de aprobación inicial se someterá a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.

Tercero.- Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.

Cuarto.- Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

4.- Modificación de la ordenanza para la conversión de locales en viviendas. Aprobación inicial.

El alcalde, tras explicar las razones para modificar la ordenanza, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la : Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad

PRIMERO.- APROBAR INICIALMENTE la modificación puntual de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en viviendas, consistente en los siguientes aspectos:

a.- Eliminar el apartado 3 del artículo 2.

b.- En la regulación de los supuestos **excluidos** en el artículo 2, añadir los apartados d) y e) con la siguiente redacción:

“d) Los locales que en el planeamiento urbanístico vigente quedan destinados al uso específico de



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

eraikin nagusiaren osagarri gisa hartzen diren erabileretarako xedatuak diren lokalak.

e) Etxebizitza-erabilera aldatzeko eskaera egiten den unean, lehen erabilerako lizentzia lortu zenetik gutxienez hamar (10) urteko epea igaro ez den eraikinetan kokatutako lokalak.

c.- 3. artikuluan. «Araudi aplikagarria», 4. Paragrafoa gehitzea, honela idatzita:

“4.- Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzei buruzko araudi autonomikoa”.

d.- 4.1 artikuluan, azalpen bat gehitzea, eta honela idatzita:

“1.- Behe -solairuan kokatutako merkataritza-erabilerako edo hirugarren sektoreko erabilerako lokalak bihur daitezke etxebizitza, baldin eta 2. artikuluan araututako salbuespen-kasuren batean ez badaude. Halaber, orubearen topografia dela-eta eraikinik gabeko espazio libre publiko zein pribatuetara ematen duten fatxadak dituzten eraikinetan, behe-solairuaren azpiko edo gaineko solairuan kokatutako lokalak onartzen dira.”

e.- 20. artikulua aldatzea eta honela idaztea:

“ 20. artikulua. Etxebizitzen hartzaileen baldintzak.

Etxebizitza eskuratzeko edo errentan hartzeko, indarrean dagoen Udal etxebizitza Tasatuaren Ordenantza Orokor Arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko ditu pertsonak. Gainera, Astigarragan erroldatuta egon beharko du Udalak behin-behineko kalifikazioa ematen duen unean:

1. Azken bi urteetan, etenik gabe, edota

2. Udalerrian gutxienez 10 urtez etenik gabe erroldatuta egon izana egiaztatzea, edota

3. Udalerrian gutxienez 15 urtez –txandaka eta etenda– erroldatuta egon izana egiaztatzea

4. Azken 5 urteetan 3 urtez Astigarragan lan egin izana egiaztatzea eta kontratua indarrean izatea

garaje/aparcamiento y usos considerados como anejos a la edificación principal.

e) Los locales ubicados en edificios para los que, en el momento de solicitud de reconversión de uso residencial, no hubiera transcurrido al menos un plazo de diez (10) años desde la fecha de obtención de la licencia de primera utilización.”

c.- En el artículo 3. “Normativa aplicable “, añadir el apartado 4. Con la siguiente redacción:

“4.- Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda.”.

d.- En el artículo 4.1, añadir una aclaración quedando redactado de la siguiente forma:

“1.- Son transformables en vivienda locales de uso comercial o terciario ubicados en planta baja, y que no estén en alguno de los supuestos de exclusión regulados en el artículo 2. También se admiten locales ubicados una planta por debajo o por encima de la planta baja, en edificios que debido a la topografía del solar, presenten fachadas descolgadas hacia espacios libres de edificación, públicos o privados”.

e.- Modificar el artículo 20, y darle la siguiente redacción:

“Artículo 20.- Requisitos de las personas destinatarias de las viviendas.

Para poder optar a la adquisición o arrendamiento de la vivienda la persona deberá reunir los requisitos establecidos en la Ordenanza General Reguladora de la Vivienda Tasada municipal, además de estar empadronada en el municipio de Astigarraga en el momento de la calificación provisional del Ayuntamiento:

1. En los dos últimos años de manera ininterrumpida, ó.

2. Acreditar un mínimo de 10 años ininterrumpidos empadronado en el municipio.

3. Acreditar un mínimo de 15 años alternos o interrumpidos de empadronamiento en este municipio.

4. Acreditar que en el plazo de los últimos 5 años haya trabajado 3 años en Astigarraga y tenga



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

contrato en vigor”.

f.- 21. artikuluan araubide bereziko etxebizitza tasatuei buruz egiten den aipamena kentzea, eta honako idazketa ematea:

“21. artikulua. Gehieneko prezioak eta errenta.

Lehen, bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan, etxebizitzaren metro koadro erabilgarriaren gehieneko salmenta-prezioa eta errentamenduagatik ordaindu beharreko gehieneko errenta indarrean dagoen Udal etxebizitza Tasatuaren Ordenantzak ezarritako baldintzak izango dira.

g.- 22. artikulua aldatzea, honela idatzita:

22. artikulua.- Gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak.

Ordenantza honetan araututako etxebizitzaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da, jabe eskualdatzaileak Udalari salmenta jakinarazten dion unean, Udal Etxebizitza Tasatuak Arautzeko Udal Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzea.

h.- “XEDAPEN IRAGANKORRAK

Aurretik erabilera aldaketa gauzatu duten lokalek, erabilera aldaketa gauzatu zuten unean indarrean zegoen araudia izango zaie aplikagarri”.

BIGARRENA.-Ordenantzaren aldaketa jendaurrean jartzea 30 lan egunez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua diona jarraikiz.

HIRUGARRENA.- Aldaketa hau behin betiko onartzeko, merkataritza lokalak etxebizitza bihurtzeko Ordenantzaren testu_bategina_idatziko da.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

f.- Suprimir la referencia a las viviendas tasadas de Régimen Especial que se realiza en el artículo 21, y se otorga la siguiente redacción:

“Artículo 21.- Precios y renta máximos

El precio máximo de venta del metro cuadrado útil de la vivienda en primeras, segundas y posteriores transmisiones, así como la renta máxima a abonar por arrendamiento serán los establecidos en la Ordenanza Municipal Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal.

g.- Modificar el artículo 22, redactándose en los siguientes términos:

“Artículo 22.- Ingresos máximos y mínimos.

Para ser adjudicatario de las viviendas reguladas por la presente Ordenanza será imprescindible, en el momento de la notificación de venta al Ayuntamiento por parte del propietario transmitente, dar cumplimiento a los requisitos establecidos en la Ordenanza Municipal Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal.

h.- “DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los locales que hayan realizado un cambio de uso, con carácter previo a la entrada en vigor de la presente modificación, les será de aplicación la normativa vigente en el momento en que se materializó el cambio de uso.”.

SEGUNDO.- SOMETER la modificación de la Ordenanza a información al público, por el plazo de 30 días hábiles, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local.

TERCERO.- Para la aprobación definitiva de la presente modificación se redactará un texto refundido de la Ordenanza para la conversión de locales comerciales en viviendas.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

5. Udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena.

Alkateak, ordenantza aldatzeko arrazoiak azaldu ondoren, Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

LEHENENGOA.- Astigarragako Udal Etxebizitza Tasatua arautzeko toki-ordenantzaren aldaketari HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

BIGARRENA.- Astigarragako Udal Etxebizitza Tasatuak arautzen dituen toki-ordenantzaren aldaketa JENDAURREAN JARTZEA, 30 egun balioduneko epean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

5.- Modificación ordenanza reguladora de viviendas tasadas municipales. Aprobación inicial.

El alcalde, tras explicar las razones para modificar la ordenanza, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la : Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad

PRIMERO.- APROBAR INICIALMENTE la modificación de la ordenanza local Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Astigarraga.

SEGUNDO.- SOMETER la modificación de la ordenanza local Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Astigarraga a INFORMACIÓN AL PÚBLICO, por el plazo de 30 días hábiles, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

6.- Gipuzkoako foru Aldundiaren eta udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Alkateak, hitzarmenaren nondik norakoak azaldu ondoren, Gizarte Zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- ONARTZEA etxez etxeko laguntzazerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmena.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmen markoa sinatzeko, eta baita horigaratzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.

Hirugarrena.- Akordioaren berri ematea udal kontuhartzailtzari

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

6.- Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.

El alcalde, tras explicar los pormenores del convenio, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la : Comisión Informativa de Servicios Sociales y tercera edad

Primero.- APROBAR el Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento para la financiación del servicio de ayuda a domicilio

Segundo.- Autorizar al alcalde a la firma del convenio marco y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.

Tercero.- Dar cuenta del acuerdo a intervención municipal.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

7. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea

Alkateak Gizarte Zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Etxez etxeko zerbitzua emateko, Astigarragako udalak Arreta Zerbitzuak enpresarekin sinatuta duten kontratua LUZATZEA, 2022ko irailaren 16a arte.

Bigarrena.- Arreta Zerbitzuak enpresari akordio honen berri ematea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

7.- Contrato del servicio de asistencia domiciliaria: proroga del contrato

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y tercera edad:

Primero.- PRORROGAR, hasta el 16 de septiembre de 2022, el contrato de servicio de ayuda a domicilio, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la empresa Arreta Zerbitzuak.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a la empresa Arreta Zerbitzuak.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**

8. Babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua: kontratua luzatzea.

Alkateak Gizarte Zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- “Marisa Garaño” babespeko etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzua emateko, Astigarragako udalak Arreta Zerbitzuak enpresarekin sinatuta duten kontratua LUZATZEA, 2022ko irailaren 16a arte.

Bigarrena.- Arreta Zerbitzuak enpresari akordio honen berri ematea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

8. Contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas: proroga del contrato.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y tercera edad;

Primero.- PRORROGAR, hasta el 16 de septiembre de 2022, el contrato de servicio de asistencia a las personas usuarias de las viviendas tuteladas “Marisa Garaño”, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la empresa Arreta Zerbitzuak.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a la empresa Arreta Zerbitzuak.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**

9. Adierazpen instituzionalaren proposamena: Martxoaren 8aren ingurukoa

Alkateak azaldu du egindako bozeramaile batzordean onartu dela EH Bildu udal taldeak aurkeratutako testua adierazpen instituzionaltzat onartzea. Jarraian testua aurkeztu du onartua izan dadin:

Martxoaren 8a, Emakumeon Nazioarteko Eguna, Mugimendu Feministaren lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko

9, Propuesta de Declaración institucional sobre el 8 de Marzo

El alcalde comenta que la Junta de Portavoces ha acordado aprobar el texto presentado por el grupo municipal de EH Bildu como declaración institucional. A continuación presenta el texto para su aprobación:

El 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer, es un día de reconocimiento a la labor del Movimiento Feminista y de presentación de retos de cara al



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

eguna da.

Genero-desberdintasun estrukturalak hor jarraitzen dute, emakumeen gain jartzen da zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta horrek gainera, prekarizazioa areagotzen du. Jendarte eredu desorekatu honi egoki erantzunak dioten irtenbide integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalak honako konpromiso hauek onartzen ditu:

- Astigarragako III. Berdintasun Plana garatzen jarraitzea.
- Berdintasun Teknikariaren lan-baldintzak egonkortzeko hautaketa prozesua amaitzea.
- Emakumeek historian zehar eta gaur egun Astigarragari egin dioten ekarpena erakusteko ekintzak antolatzen jarraitzea (ikerketa beka, erakusketak, bestelako proiektuak...).
- 2021. urtean egindako Zaintza lanen eta kontziliazioaren diagnostikoak agerian utzi dituen beharrei erantzuteko lanaketa egitea.
- Astigarragako Emakumeon Etxeari behar adina baliabide bermatzea.
- Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduzko indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, tokiko eragile feministekin batera.

Azkenik, Astigarragako Udalak Martxoaren 8arekin loturiko ekimen feministetan parte hartzeko deia luzatzen die astiartar guztiei.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **ahor batez onartu** da.

futuro.

Las desigualdades estructurales de género continúan, la mayor parte de la carga de cuidados, remunerada y no remunerada, recae sobre las mujeres, lo que aumenta la precarización. Las soluciones integrales que respondan adecuadamente a este modelo desequilibrado de sociedad son urgentes, en todos los ámbitos y niveles, desde el global hasta el local y viceversa.

Para ello hay que coordinar las instituciones y abrir cauces para que la ciudadanía participe real y eficazmente en las decisiones públicas, especialmente los múltiples grupos de mujeres y el movimiento feminista. Debemos afrontar adecuadamente la gran responsabilidad pública que tenemos y ello debe hacerse desde premisas feministas, favoreciendo la articulación y la participación, elaborando planes y programas transformadores, atendiendo las emergencias y posibilitando todos los recursos necesarios.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Astigarraga asume los siguientes compromisos:

- Continuar con el desarrollo del III. Plan de Igualdad de Astigarraga.
- Finalizar el proceso selectivo para la cobertura definitiva de la plaza de la Técnica de Igualdad.
- Continuar organizando acciones para mostrar la aportación de las mujeres a lo largo de la historia y en la actualidad a Astigarraga (beca de investigación, exposiciones, proyectos diversos...).
- Trabajar para dar respuesta a las necesidades que ha puesto de manifiesto el diagnóstico de los trabajos de vigilancia y conciliación realizados en 2021.
- Garantizar recursos suficientes a la Casa de las Mujeres de Astigarraga.
- Impulsar acciones de empoderamiento individual y colectivo de mujeres, adolescentes y niñas en colaboración con agentes feministas locales.

Por último, el Ayuntamiento de Astigarraga anima a todos y todas las astiartarras a participar en las iniciativas feministas relacionadas con el 8 de Marzo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

10. Informazioa, galderak eta oharak

a.- DBH

Nerea zinegotziak DBH eraikitzearen inguruko informazioa eskatu ondoren, alkateak azaldu dio uztaileko udal osoko bilkuran erabaki zela lursaila lagatzea, eta Hezkuntza udal-teknikariekin harremanetan jarri dela egikaritze-proiektua idazteko zenbait alderdi tekniko argitzeko. Gaineratu du aurreikusita dagoela hori 2022rako idatzita egotea eta 2023an, berriz, obrak hastea.

b.- Autobus zerbitzua

Nerea zinegotziak autobus zerbitzuaren inguruko informazioa eskatu du. Adierazi du Mugi Astigarraga Plataformak bilera eskatu dietela, eta horiekin elkartu aurretik jakin nahi dutela autobus zerbitzuari buruzko berririk dauden.

Alkateak azaldu dio Donostiako Udalarekin bilera egin dutela bertako autobus-zerbitzua Astigarragaraino zabaltzeko eta prest azaldu direla horren inguruko azterlana egiteko. Baina egin aurretik jakin nahi dela Aldundiak arazoak jarriko dituen hiri barruko linea bat hiri kanpoko bihurtzeko, are gehiago, autobus-linea berrentolatzeak Buruntzaldeko linea ukitzen duenean. Eta gaineratu du, Donostiako Udalarekin batera idatzi bat bidali dela Aldundira, Dbus-en linea zabaltzeko aukera aztertzen hasi aurretik Aldundiaren iritzia jakiteko.

c.- Gaztelekuko hezitzaileen idatzia

Alkateak adierazi du Gaztelekuko hezitzaileek osoko bilkurari idatzi bat zuzendu diotela, minduta daudelako EAJ-PNV taldeak kutur etxe zaharrean azaldutako pintadak Gaztelekuko jarduerarekin lotu izanagatik.

Gaineratu du udal gobernu taldearentzat Gaztelekuko kokapen berria (kultur etxe zaharra) egokia eta aproposa dela, eta hara eraman aurretik ere, eraikin horretan pintadak egin ohi izan direla.

Nerea zinegotziak adierazi du hezitzaileen idatzia

10. Información, ruegos y preguntas.

a. ESO

Tras solicitar la concejala Nerea información sobre la construcción de la ESO, el alcalde le explica que en la sesión plenaria de julio se acordó la cesión del terreno, y que Educación se ha puesto en contacto con los técnicos municipales para aclarar algunos aspectos técnicos de cara a la redacción del proyecto de ejecución, que se prevé que esté escrito para 2022 y que las obras comiencen en el 2023.

b.- Servicio de autobuses

La Concejala Nerea solicita información sobre el servicio de autobuses. Indica que la Plataforma Mugi Astigarraga les ha pedido una reunión y antes de reunirse, quieren saber si hay noticias sobre el servicio de autobuses.

El Alcalde explica que han mantenido una reunión con el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián para ampliar el servicio de autobuses hasta Astigarraga y que se han mostrado dispuestos a realizar un estudio al respecto. Pero antes de hacerlo quieren saber si la Diputación va a poner problemas para convertir una línea urbana en interurbana, máxime cuando la reordenación de la línea de autobús afecta a la línea de Buruntzaldea. Y añade que, junto con el Ayuntamiento de Donostia, se ha enviado un escrito a la Diputación para conocer su opinión antes de analizar la posibilidad de ampliar la línea de Dbus.

c.- Escrito de las educadoras del Gazteleku.

El alcalde señala que las educadoras del Gazteleku han dirigido un escrito al Pleno por su malestar al relacionar el grupo EAJ-PNV las pintadas que se han hecho en la antigua casa de cultura, con la actividad del Gazteleku.

Añade que para el equipo de gobierno municipal la nueva ubicación de Gazteleku (antigua casa de cultura) es adecuada, y que antes del traslado, ya se hacían pintadas en ese edificio.

La Concejala, Nerea, señala que no han tenido



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

aztertu eta horren inguruko hausnarketa egiteko astirik ez dutela izan (egun berean jaso baitute), baina argitu nahi dutela bere taldea ados ez dagoenarekin zerbitzua kultur etxe zaharrean kokatu izanarekin dela, eta ez dutela inola ere Gaztelekuko hezitzaileek egiten duten lana zalantzan jarri nahi.

tiempo de analizar y reflexionar sobre el escrito de las educadoras (lo han recibido el mismo día), pero que quiere aclarar que con lo que no está su grupo de acuerdo es con ubicar el servicio en la antigua Casa de Cultura y que en ningún caso quieren cuestionar el trabajo que realizan las educadoras del Gazteleku.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2022ko otsailaren 22an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria